

erman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco


Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHU

Leku bat ikastera
etortzeko, mundu berri
bat deskubritzeko.



UPV
EHU

A rowing team is shown in a boat on the water, with a lighthouse in the background. The rowers are in a synchronized rowing motion, and the water is dark with some ripples. The background shows a coastline with a lighthouse and some buildings.

Pirinioen bi aldeetan banatuta, mendikatearen mendebaldeko muturrean dago Euskal Herria, oraindik jatorri ezezaguneko hizkuntza bat antzinatek hitz egiten duen eta nortasun handiko kultur tradizioa daukan giza talde eta herri multzo batek okupaturiko lurraldea.

EUSKAL KADI

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoa, garapen ekonomiko, eta gizarte eta zientzia garapen handiena duten Europako lurraldeetako bat da. Energiaraz, indarrez eta kontrastez beteriko herrialde bat. Aurrera egiten duen eta egunero bere burua berrasmatzen duen herrialde plural eta solidario bat. Denboran zehar, euskal gizarteak egoera historiko ez beti aldekoegi egokitzen jakin izan du. Egokitzeko gaitasun hori funtsezkoa izan da herrialdearen bilakaerarako, eta hari esker, gure garaiko gizarte aurreratuenetako bat da, jakintzaaren aldeko apustu argia egiten duten horietako bat.

Berez, zientziaren, teknologiaren eta kulturaren arloko aurrerabideak dira Euskal Herriaren ezaugarri nagusietako bat, eta haren oinarri da, hein handi batean, bertako unibertsitate publikoaren, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) jarduerak. Euskal komunitatearen garapena azaltzeko gakoetako bat gure unibertsitatea da. UPV/EHUK egoitzak ditu lurraldeko hiru hiri nagusietan: Bilbo, Donostia eta Gasteiz, hirigintza eredu bero eta atsegina eta arte eta kultura proposamenen eskaintza bikaina duten hiru hiri ertain.

Naturak, gainera, izugarri maite du Euskal Herria. Ingurune pribilegiatua da mendi, baso eta kostalde aberatsak baititu. Oroitzapen ezabaezinak pizten dituzten txoko erakargarriak zipriztindutako geografia bat, deskubritzea merezi duena.

Horri guztiari esker, Euskadi leku zoragarria da, ez bakarrik ikasketak egiteko, baizik eta bizitzeko.





Gizarte aurreratu bati zuzenduriko unibertsitatea.

Euskadi mundu
mailako
erreferentea
da **industria**
sektorean.

4.0 industria
euskal
ekonomiaren
apustu
estrategikoa da.

Bertako **per
capita errentak**
Europako
batez bestekoa
gainditzen du.

25 eta 35 urte
arteko biztanleen
erdiak goi mailako
ikasketak ditu,
Europako batez
bestekoaren oso
gainetik.

**Euskal osasun
sistemaren
antolamenduak eta
funtzionamenduak**
izen handia du
nazioarteko mailan.

Kultur ekoizpenaren
barruan,
nabarmentzekoa da
Eduardo Chillida eta
Jorge Oteiza buru izan
zituen eta XX. mendean
zehar eskulturaren
kodeak irauli zituen
mugimendua.

Euskadi **Europako
leku seguruenetako
bat da**, eta mundu
osoko delinkuentzia
maila txikienetako
bat du.

Goza ezazu eta
egin ikasketak
Europako eskualde
garatuenetako
batean.




Unibertsitate publikoa, bikaintasunarekin konprometitua.

UPV/EHU 1980an sortu zen. Unibertsitate publiko eta ikertzailea da, eta jakintza sortzearen eta hura gizartearekin partekatzearen aldeko apustua egiten du. Horrez gain, nazioartekotze prozesuan sartuta dago bete-betean, baina, aldi berean, euskal kulturarekiko lotura estua du. Eduardo Chillidak sorturiko logotipoak eta harekin batera doan Jose Maria Iparragirreren XIX. mendeko «Gernikako arbola» kantuaren bertso batek ezin hobe irudikatzen dute Unibertsitatearen xedea:

EMAN TA ZABAL ZAZU (MUNDUAN FRUITUA)





Euskal Herriko Unibertsitateak, bestalde, ideia berriak sortzeko, eztabaidarako eta iritziak trukatzeko espazioa ere izan nahi du. Konpromiso etiko eta sozial sendo baten oinarriaren gainean, giza eskubideak, genero berdintasuna, kultur aniztasuna eta desberdinen arteko bizikidetzaren defendatzen ditu, betiere gizartearen eta etorkizuneko belaunaldien mesedetan.

Euskal Herriko Unibertsitateak modu erabakigarrian indartu du euskararen rola pentsatzeko hizkuntza eta zientzia sortzeko tresna gisa.

400

Munduko 400 unibertsitate onenen artean, Shanghaiko rankingaren arabera.

200

50 urtetik beherako munduko 200 unibertsitate onenen artean, Times Higher Education delakoaren arabera.

MUGAZ GAINDIKO CAMPUSA

Mugaz gaindiko campusa Bordeleko unibertsitatearekin, euroeskualdearen ardatzetako bat.

NAZIOARTEKO BIKAINASUN CAMPUSA

Nazioarteko Bikaintasun Campusa, Espainiako Hezkuntza Ministerioaren arabera.

Bilatzen duzun guztia eskainiko dizun unibertsitate bat...

100 gradu baino gehiago jakintza arlo guztietan.

Gure gradu eskaintza munduko osatu eta anitzenetako bat da: 100 gradu titulazio baino gehiago: Medikuntzatik hasi eta Automobilgintzaren arloko Ingeniaritzaraino; Matematiketatik Sorkuntza eta Diseinuraino; Filosofiatik Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gehi Zuzenbideraino... eta, gainera, hiru hizkuntzatan.

100 master baino gehiago.

Itsas Ingurumenari eta Baliabideei buruzko master bat? Konputazio master bat? Ingeniaritza Biomedikokoa? Teknologia, Ikaskuntza eta Hezkuntzakoa? UPV/EHUn aukera horiek guztiak eta 100 gehiago aurkituko dituzu. Enplegarritasuna areagotzeaz gain graduondoko prestakuntzak aukeraturiko jakintza arloan sakontzen laguntzen du batez ere, eta hobetu egiten ditu kualifikazio profesionala eta intelektuala.

Eta 66 doktorego programa.

Hiru unibertsitate campus:
· Bizkaia
· Gipuzkoa
· Araba

3

Hiru hizkuntza:
· Euskara
· Gaztelania
· Ingelesa

3

20 fakultate eta ikastegi

20

68 eraikin (13 liburutegi)

68

45.000 ikasle

45.000

5.600 irakasle eta ikertzaile

5.600





1.800
profesional

1.800

100 gradu
jakintzaren arlo
guztietan

100

108
master

108

Eta 66
doktorego
programa

66

1.300 ikasle
atzerriko
unibertsitateetan

1.300

1.100
ostatu plaza

1.100

... baita bikoitza ere.

Euskal Herriko Unibertsitateak urtero-urtero zabaltzen du bere eskaintza, eta orain hamar bat gradu bikoitz ditu. Gainera, munduko unibertsitate ospetsuenetako batzuekin dituen hitzarmenei esker, ikasleek hogeit bat nazioarteko titulazio bikoitzen artean aukeratu dezakete, beren gradu tituluak beste herrialde batzuetan ere aintzatets ditzaten.

UPV/EHU aitzindaria da prestakuntza dualaren arloan, eta eredu horren presentzia garatu eta jakintzaren hainbat arlotara zabaldu du. Prestakuntza horren helburua enpresan eskuratutako gaitasunak eta unibertsitatean eskuratutakoak uztartzea da.

Gainera, enprekin, elkarteekin eta erakundeekin dituen 5.000 hitzarmenei esker, UPV/EHUK enpresetan, elkarteetan eta administrazio publikoetan 11.000 praktika aukera baino gehiago eskaintzen ditu urtero.





Berezko hezkuntza eredu ziurtatua.

Euskal Herriko Unibertsitateak ikaskuntza dinamiko eta kooperatiboan oinarrituriko IKD hezkuntza ereduarekin egiten du lan. Eredu horren bitartez erronketan, proiektuetan, arazoetan eta kasu errealetan oinarrituriko metodologia aktiboak garatzen dira, eta haiek, aldi berean, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzen laguntzen dute. IKD ereduari, ikerketa ikaskuntza onaren funtsezko elementua da, eta beti dago gogoetarekin eta arazoaren konponketarekin loturik.

Pertsona guztiek dute lekua gure unibertsitatean. UPV/EHUk egunero egiten du lan ezintasunengatiko aniztasunaren, arrazoi politikoengatiko jazarpenaren, genero identitateen, babes sistemen eta abarren arretaren arloan.


Bestalde, unibertsitatean jasagarritasunerako hezkuntzarekin loturiko hainbat proiektu lantzen ditugu, zeinetan ikastea ikasleak aberasten dituen bizitza esperientzia bilakatzen den.

UPV/EHU bere ikerketa jardueraren kalitateagatik eta bolumenagatik gailentzen da. Euskal Herriko zientzia eragile nagusia da, unibertsitate erreferentzia Euskadiko ikerketa eta berrikuntza ekosisteman.

Unibertsitatearen kalitatea haren campusetan garatzen den ikerketaren mailak ezartzen du. UPV/EHUko ikertzaileek bikaintasunarekiko konpromiso argia dute. Haietako asko, gainera, mundu mailako lider dira hainbat espezialitatetan. Hala, bertako ikasleek goi mailako ingurune profesional eta akademikoetan ondo moldatzeko ezinbestekoak diren sormena eta espiritu kritikoa bultzatzen dituen giro batean ikasteko pribilegioa daukate.

Euskal Herriko Unibertsitatean graduatzen eta doktoratzen diren pertsonak Euskadiko eta beste autonomia erkidego batzuetako unibertsitate, ikerketa institutu, zentro teknologiko eta osasun zentro eta enpresetan garatzen dute beren laneko jarduerak. Unibertsitateak erakunde horiekin duen harreman sareak erraztu egiten du ikasleen laneratzea. Baina, horrez gain, asko dira munduko beste eskualde batzuetara joaten diren pertsonak, eta haien ekarpenek balioespen handia jasotzen dute bertan.

Laneratzea errazteaz gain, UPV/EHUk inguruko erakundeekin dituen loturek jakintza transferentzia handia egitea ahalbidetzen dute, horren bitartez gure ingurune sozioekonomikoaren lehiakortasuna, ongizatea eta gizarte kohesioa sustatuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatzeko.



DNAn txertatuta daramagu ikerketa

A photograph of two scientists in a laboratory setting. They are wearing white lab coats, hairnets, and face masks. One scientist is wearing blue gloves and is using a pipette to transfer liquid into a small vial. The other scientist is looking on. They are working on a patient's chest, which is covered with a red cloth. The background is a plain wall.

Aitorpena jaso duten
290 ikertalde.

Euskadin egiten den ikerketaren
% 60 gure unibertsitate campusetan
gauzatzen da.

Astean 6 doktorego tesi;
horietako 3 nazioartekoak.

Astean 35 artikulu baino gehiago
lehen kuartileko (Q1) aldizkarietan.

Argitalpenen % 50 aldizkari lehiakorretan
(WoS eta Scopus) egitea nazioarteko
lankidetzaren emaitza da.

Urtean 5 patente
hainbat jarduera arlotan.

Mundura irekitako unibertsitate bat.

Aurrera egitea, ezagutzea, deskubritzea... Halako ezer ez litzateke posible gure etxetik harago begiratu eta jakintza partekatu gabe. Azken urteetan, Euskal Herriko Unibertsitateak sendotu egin ditu munduko unibertsitate onenetako batzuekiko loturak (Cambridge, Kopenhage, Paris-Sud, British Columbia, Heidelberg, King's College London...), haiengandik ikasiz eta haiekin haziz. Era berean, sendotu egin du Bordeleko Unibertsitatearekiko harremana, Europar Batasunean bakarra den eta unibertsitateen arteko lankidetzaren arloan erreferente bilakatu den mugaz gaindiko campus bat sortuta.

Atlantikoaren bestaldean, UPV/EHUK aktiboki sustatzen du Graduondoko Latinoamerikako Sarea, gaur egun mundu osoan aurkitu daitekeen sare akademiko zabalena, alderdi geografikoari erreparatuta.

UPV/EHUn hizkuntzak ez dira muga bat, aukera bat baizik. Horregatik, irakasgai askotan hizkuntza aukeratu daiteke (gaztelania, euskara eta ingelesaren artean) edo hiru hizkuntza horietako edozeinetan master bat egin.





Munduko 100 aldizkari onenetako 17rekin egiten dugu lan.

Mugaz Gaindiko Campusa Euskal Herrian eta Akitania Berrian eragin handia duen nazioarteko eredu bat da.

Graduondoko Latinoamerikako Sarearen bitartez, UPV/EHUK 13 herrialdeetako 20 bat unibertsitatetan eskaintzen ditu bere ikasketak.

Kaixo. Hola. Salut. Hello...


Ez dago ikasteko modu hoberik.

Ez dago bidaiatzea, esperientziak eta jakintzak partekatzea, beste pertsona eta kultura batzuk ezagutzea, entzutea, kontatzea... baino gauza aberasgarriagorik. Horregatik, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak 150 herrialdetan baino gehiagotan daude. Era berean, munduko txoko guztietako ikasleak igarotzen dira UPV/EHUko ikasgela, liburutegi eta laborategietatik. Dela gradu bat egiteko, truke baterako edo graduondoko baterako, dela garapenerako lankidetzako programetako batean parte hartzeko, badakigu ez dagoela munduari irekitzea baino ikasteko modu hoberik.

Azken lau urteetan
% 66 hazi da
UPV/EHUraren etorri diren
nazioarteko ikasleen
kopurua.

250 irakasgai
English Friendly
Course eredu,
gradu
ikasketen
barruan.

750 irakasgai
baino gehiago
hizkuntza ez
ofizialetan.



UPV/EHUko ikasle
egresatuen
% 22,5ek nazioarteko
mugikortasun
programetan parte
hartu du.

1.100 Erasmus
hitzarmen
baino gehiago
27 herrialdetan.

300 master
irakasgai baino
gehiago hizkuntza
ez ofizialetan.

Etxean bezala sentitzea milaka kilometrora egonda ere.

Euskal Herriko Unibertsitatera hurbiltzen diren pertsona guztiak etxean bezain ondo sentitzea nahi dugu, baina ez da gauza zaila herrialdeko jendearen izaera ireki, abegitsu eta hurbila aintzat hartuta, eta unibertsitateak eskaintzen dituen euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza eta kultura ikastaroen eskaintza zabala ikusita.


Etorkizuna eraikitzen duen unibertsitate bat.

Gure garaiko erronkei erantzutea, industria baliabidez hornitzea, 4.0 mundu batean lan egitea, ikerketa bioteknologikoaren buru izatea, gizarte aurreratu baten garapen estandarrei eustea, milurtekoko helburuak bete daitezten lan egitea...

Hori guztia posible da ikasleak bikaintasunean hezteko gai den unibertsitate batean, haien premiekin bat datozen baliabideak eta zerbitzuak, instalazioak eta azpiegiturak dituen unibertsitate batean.

Euskal Herriko Unibertsitatea unibertsitate onenetako bat da helburu horiekin lerrokatuta dagoen proiektu pertsonal eta profesionala gauzatzeko. Eta, batez ere, bizitzak eta ikasketek aliantza oparo bat osatzen duten lekua da: ikasteko leku bat, bizitzeko leku bat.





eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

